

Gaia: Plentziako Anbulatorioa dela eta	ZNBK: 80/2020
--	---------------

Elixabete Uribarri Uriarte andrea,

Azken urteotan, Plentziako Osasun Zentroak lan-karga handiak jasan ditu, langile finkoen murrizketa eta Pediatriako zerbitzuetan izandako aldaketak direla eta. Hala jakinarazi digute egoera horri baldintza prekarioekin aurre egiten dioten profesionalek.

Duela gutxi jakin dugu egoera larri horri osasun-krisiaren ondorioz *a priori* sortutako arazo hauek gehitu behar zaizkiola:

- Alde batetik, Plentziako Osasun Zentroak, arratsaldeko txandan, Gorlizko Zentroko Etengabeko Arretako Gunea (EAG) zerbitzua etetearen ondoriozko kasuak bere gain hartzen ditu.

- Bestetik, tokiko osasun-zentroetan lehen ikastetxeetan egiten zen txertaketa-kanpaina bere gain hartu behar da (eskola-osasuna, 150 txertaketa baino gehiago Plentziaren kasuan); horretarako, logikoa denez, langile gehiago beharko lirateke, egungo osasun-alarmak eskatzen duen bezala.

- Horrez gain, uda honetan murriztu egin da langileen errefortzua, eta, beraz, beste udalerrri batzuetako pertsonak gure herrira iritsi direnez, artatu beharreko biztanleria ezin da gaur egungo baliabideekin hartu.

Beraz, gure udalerrietako osasun-arretako langileak itota daude.

Horregatik, honako hau proposatzen dugu:


- Ahalik eta lasterren gure anbulatorioko behar zehatzak aztertzeko lan-mahai bat sortzea, Gorlizko Udalarekin eta bi udalerrietako osasun-zentroetako arduradunekin batera. Era berean, bertan egotea eskatzen dugu.
- Osakidetzari, urgentziaz, bi osasun-zentroi sortzen zaizkien zailtasunei aurre egiteko beharrezko baliabideak emateko eskatzea.

Egoeraren larritasuna dela eta, eta zentroetan lan egiten duten profesionalak kolapsoaren atarian daudela ikusita, egoera konpontzeko azkartasuna eskatzen dugu, eta eman beharreko pausoak ahalik eta lasterren jakinaraz dakizkigula (telefonoz edozein unetan harremanetan jar gaitzke nirekin).

Gure eskaera kontuan hartuko duzulakoan, zure erantzunaren zain geratzen gara.

Adeitasunez,

Plentzian, 2020ko maiatzaren 29an



David Crestelo Dominguez